

# IRAKURMEN-ULERMENA

Bazen behin, 8 urteko Sara izeneko neskatxa alai bat. Sara Gasteizen bizi zen bere familia erraldoiarekin eta erraldoia dela esaten dut ez bakarrik kopuruagatik, bihotz erraldoia zutelako denek, baizik.

Sara familiako alaba txikiena zen eta 5 anaia-arreba zituen. Beraz, imajinatu ahal duzue zer-nolako juergak botatzen zituzten.

Sararen familia artisteraz osatuta zegoen eta akrobazia talde bat osatzen zuten denek. Astebururo herri ezberdin batean antzezten zuten. Nahiko nuke nik ere horrelako txiribueletak ematea!

Orain, koronabirus madarikatu honengatik, haien ikuskizunak bertan behera utzi behar izan dituzte.

Baina, artistek buruari etengabe eragiten diote ideia zoragarrien bila eta Sararena mundiala iruditu zait. Bideo bat grabatuko du dantzatzen duen bitartean.

Sara nere bizitza osoan ikusi dudana dantzari onena da, benetan. Ezin duzue imajinatu nola mugitzen dituen ipurdia, aldaka, besoak eta hankak!

Beraz, Sararen bideoa Euskal Herriko etxe askotara heltzen ari da eta gero eta jende gehiagok dio hau amaitzen denean bere familiaren akrobazia ikuskizuna ez duela galduko.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Maeztuko plazan.



# **IPUINA IRAKURRI ONDOREN, ERANTZUN ONDORENGO GALDEREI:**

**1. Zenbat urte zituen Sarak?**

**2. Non bizi zen Sara?**

**3. Zenbat seme-alaba zituen Sararen familiak?**

**4. Zein zen haien lana?**

**5. Zein da Sararen abilezia onena?**

**6. Zer gorputz atalak mugitzen ditu primeran dantzatzerakoan?**

**7. Nora heldu da Sararen bideoa?**